Toma la palabra el portavoz de BILDU Xabier Yurramendi señalando que con este tema se ha celebrado más de una Junta de Portavoces y que es importante que en este tipo de temas haya unanimidad, más aún teniendo en cuenta que ya se ha aprobado una Declaración al respecto. Señala que se abstendrán en la votación.



## 2012KO URTARRILAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE ENERO DE 2012

EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta eskatu du gai hau utz dezatela mahai gainean eta eztabaida dezatela beste osoko bilkura batean. Nabarmendu du osoko bilkura honetan jadanik onartu dutela adierazpen bat eta Legebiltzarreko beste organo batzuetan gai hau eztabaidatzen ari direla, dokumentu bat adosteko xedez, eta uste duela Udal honek itxaron ditzakeela egun batzuk, eta, hala, dokumentu bateratu bat lortu, areago hain kontu labaina izanda, herritarren aurrean emango duten irudiari begira. Adierazi du mozio hori ez doala harago eta egokiagoa litzatekeela dokumentu adostu bat izatea; beraz, kentzeko eskatu dute, batez ere kaltetuengatik, haiek ikus dezaten gai honetan elkarturik daudela eta konpromisoa irmoa dela.

Hermenegildok erantzun dio kaltetuak nekatuta daudela hitz politetz eta ekintzak nahi dituztela, eta ahaleginak egin eta argitara atera behar direla erantzule guztiak.

Maribel Vaquerok erantzun dio alderdien arteko akordio politiko bat badago katean joango direla alde guztietan bermatzen. Adierazi du abstenitu egingo direla. Bukatzeko, adierazi du EAJK zuzenketa bat aurkeztu zuela Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan, haur lapurtuentzako diru-laguntza bat izan zedin, eta alderdi sozialistak aurkako botoa eman zuela. Adierazi du dirudien ezinbestekoa dela mozio bat onartzea adierazpen instituzionalari zentzua emateko, baina biharko egunean akordio zabalago bat egongo dela eta berriro ere hona itzuli beharko dutela.

Udal talde sozialistak aurkeztutako mozioaren bozketa egitea proposatu du Alkateak eta emaitza hau izan du:

Alde: 2 (PSE-EE/PSOE)

Kontra: 0

Abstentzioak: 9 (BILDU 5, EAJ-PNV 4)

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero solicitando que este tema se deje sobre la mesa y se discuta en otro pleno. Recalca que en este pleno ya se ha aprobado una Declaración institucional al respecto y que sabe que en otros órganos parlamentarios se está tratando este tema al objeto de consensuar un documento y entiende que este Ayuntamiento podía esperar unos días y lograr así un documento conjunto más aún en este tema tan delicado y de cara a la imagen a dar con respecto a los ciudadanos. Señala que esa moción no es ir más allá y que sería más adecuado un documento consensuado, por lo que han pedido su retirada sobre todo por los afectados, para que ellos vean que estamos unidos en esto y que es un compromiso firme.

Les contesta Hermenegildo señalando que los afectados están cansados de las bonitas palabras pero que quieren hechos y que hay que hacer más esfuerzos y sacar las responsabilidades que haya.

Le contesta Maribel Vaquero que si hay un acuerdo político entre diferentes partidos se va a ir avalando en cadena en todas partes. Señala que se van a abstener. Finaliza señalando que el PNV presentó una enmienda a los presupuestos del País Vasco solicitando una subvención para bebés robados y el partido socialista votó en contra. Señala que parece que hay que aprobar una moción para darle sentido a la declaración Institucional y el día de mañana habrá un acuerdo más amplio y tendremos que volver aquí.


El alcalde ha propuesto someter a votación la moción presentada por el grupo municipal socialista con el siguiente resultado:

A favor: 2PSE-EE/PSOE )

En contra: 0

Abstenciones: 9 ( BILDU 5, EAJ-PNV 4)





## 2012KO URTARRILAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE ENERO DE 2012

PSE-EEK haur jaioberrien bidegabeko jabetzearen edo adopzio irregularren inguruan aurkeztutako mozioa onartu da.

Bozketaren ondoren, Udalbatzak legez eskatutako gehiengoarekin hartu du honako

### ERABAKIA

**Lehenengoa.-** Onartzea PSE-EEK haur jaioberrien bidegabeko jabetzaren edo adopzio irregularren inguruan aurkeztutako mozioa (III. eranskina).

**Bigarrena -** Erabaki honen berri ematea eragindako erakundeei.


### 5.- Galderak eta eskaerak

Alkateak hartu du hitza, egindako galdera batzuei erantzuteko. Adierazi du Urnietako HIAPOaren dokumentazioa jadanik bidali diotela Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari.

Langardaren gaiari dagokionez, adierazi du informazio gehiago emango dutela otsailen egingo dituzten Hirigintzako informazio batzordeetan. Adierazi du hainbat bilera egin dituztela Amenazarko abokatuekin eta bizilagunekin.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiko osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako eguncan, arratsaldeko zazpiak eta hamarreen, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Sin.: Nagore Alcorza Elorza  
Bitarteko idazkaria,



Se aprueba la moción presentada por el PSE-EE sobre la apropiación indebida de niños recién nacidos o adopciones irregulares .

Tras la votación, el Pleno con la mayoría legal exigida ha adoptado el siguiente

### ACUERDO

**Primero.-** Aprobar la moción presentada por el PSE-EE sobre la apropiación indebida de niños recién nacidos o adopciones irregulares .( Anexo III)

**Segundo.-** Notificar este acuerdo a los organismos afectados

### 5.- Ruegos y preguntas

Toma la palabra el alcalde respondiendo a unas consultas. Señala que la documentación del PGOU de Urnieta ya se ha remitido a la Comisión de Ordenación territorial del País Vasco.

En cuanto al tema de Langarda señala que se dará más información en las comisiones informativas de urbanismo que se celebrarán durante el mes de febrero. Señala que ya se han mantenido reuniones con los abogados de Amenazar y con el de los vecinos.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno ordinario, siendo las seis y cuarenta y cinco de la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Mikel Pagola Tolosa  
Alkate-lehendakaria,





## 2012KO URTARRILAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE ENERO DE 2012

### ANEXO I./ I.ERANSKINA

URNIETAKO UDALAREN ERAKUNDE-ADIERAZPENA, LAPURTUTAKO HAURREN AUZIARI BURUZKO LAGUNTZA-ESKAERARI ETA LANKIDETZARI BURUZKOA	DECLARACION INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA, EN RELACION CON LA PETICIÓN DE AYUDA Y COLABORACION EN LA PRESUNTA TRAMA DE BEBÉS ROBADOS
Erakunde-komunikatu honen bidez, Urnietako Udalak elkartasun osoa adierazten die jaioberrien lapurreten eta adopzio ilegaleen kasuetako familiei, eta elkartei eta kaltetuei laguntzeko konpromisoa hartzen du, bere eskumenen esparruan.	El ayuntamiento de Urnieta, mediante este comunicado institucional, muestran su total solidaridad con las familias afectadas por el robo y adopción ilegal de recién nacidos, y se compromete a colaborar, dentro del ámbito de sus competencias con las asociaciones y afectados.
Kaltetuek aldarrikatzen duten egia jakiteko eskubideari dagokionez, alegia, senitartekoek desagertutakoen norakoaren berri izateko eskubideari dagokionez, Urnietako Udalak uste du agintariak eskubide hori bermatzeko obligazio politikoa dutela, zehazki, eskumena duten tokiko, lurraldeko, erkidegoko nahiz estatuko agintariak.	El ayuntamiento de Urnieta entiende que garantizar el derecho a la verdad exigida por los afectados, es decir, el derecho a ser informados del destino de los familiares desaparecidos, es una obligación política de las autoridades competentes a nivel, local, territorial y autonómico, así como estatal.
Urnietako Udalak euskal erakunde guztiei eskatzen die, eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die behar diren eta haien esku dauden neurri guztiak hartzeko aipatutako elkarteek eskatzen duten egia-eskubidea bermatzeko.	El ayuntamiento de Urnieta pide a todas las instituciones vascas, en especial a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco, que adopten cuantas medidas sean necesarias y estén a su alcance para garantizar el derecho a la verdad exigido por las asociaciones anteriormente citadas.
Urnietako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, beste neurri batzuen artean, kaltetuentzako aholkularitza-zerbitzu bat sortzeko.	El ayuntamiento de Urnieta solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa que, entre otras posibles medidas, cree un servicio de asesoría de atención al colectivo afectado.
Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean hasi dituzten lanekin jarraitzeko konpromisoa hartzen du Urnietako Udalak, harik eta egitateak argitu arte.	El ayuntamiento de Urnieta solicita a las Juntas Generales de Gipuzkoa se comprometen a continuar con los trabajos iniciados en la Comisión de Políticas de igualdad, Derechos Humanos y Memoria Histórica hasta la clarificación de los hechos.



## 2012KO URTARRILAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE ENERO DE 2012

### ANEXO II/II.ERANSKINA

#### KUTXABANK-EN INGURUAN MOZIOA

#### MOCION SOBRE KUTXABANK

BILDU ETA PSE-EE udal taldeek adostutako testua, KUTXABANK-EKO Administrazio Kontseilua eratzeko eta osatzeko proposamenari buruzkoa.

Texto consensuado por los grupos municipales de BILDU y PSE-EE para la propuesta de resolución sobre la configuración del consejo de administración de KUTXABANK

Adostutako testua:

Texto consensuado:

1.- Urrietako Udalak babesa emango dio Kutxabank-i —Kutxa, BBK eta Vital Kutxa euskal kutxak batzearen ondorioz sortutako entitatea—, betiere bat egiteko oinarri izan diren irizpide adostuak mantentzen badira eta funtzio soziala mantentzen bada; hala, entitate hori ekonomia indartzeko eta herri honetako interes ekonomikoak eta herritarren ongizatea babesteko tresna garrantzitsutzat hartuko da.

1.- El Ayuntamiento de Urnieta presta su apoyo a Kutxabank, -entidad nacida de la integración de las Cajas vascas Kutxa, BBK y Caja Vital- en tanto en cuanto mantenga los criterios consensuados sobre los que fue acordada la integración, manteniendo la función social, entendiéndose así dicha entidad de este País y del bienestar de su ciudadanía.


2.- Urrietako Udalak gaitzetsi egiten du Kutxabank-eko Administrazio Kontseiluaren eraketa eta osaera; izan ere, bi indar politikoren interes alderdikoiak izan ditu irizpide gisa; hala, bide eman da Administrazio Kontseiluaren eraketa bi indar horien kontrol eksklusiboaren mende egon dadin eta baztertu egin da euskal gizartearen eta erakundearen ordezkari plural batek parte hartzea.

2.- El Ayuntamiento de Urnieta manifiesta su rechazo a la configuración y composición del Consejo Administración de Kutxabank, puesto que se han basado en criterios de interés partidista de dos fuerzas políticas, propiciándose la configuración de un Consejo de Administración sometido al control exclusivo de esas fuerzas, excluyendo la participación de una representación plural de la sociedad y las instituciones vascas.

Alde horretatik, Urrietako Udalak adierazten du Administrazio Kontseilu horren aurka daudela, izendapena egitean ez delako errespetatu bat egin duten finantza-entitate bakoitzaren benetako pisua, eta ez delako islatu Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari plural instituzional eta sozialaren errealtate plurala ere.

En es sentido, declaran asimismo la posición contraria al antedicho consejo de Administración, por haber procedido a su nombramiento, sin respetar el peso real de cada una de las entidades financieras fusionadas, y también sin reflejar la realidad plural de la representación institucional y social del País Vasco.



*Urnietako Udala**Gipuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

## 2012KO URTARRILAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE ENERO DE 2012

3.-Urnietako Udalak Kutxabank-en gaur egungo kudeatzaileei eskatzen diete errespetatzea Kutxa entitate fundatzailearentzat adostutako ordezkariak, elkarturiko hiru kutxen batzarretan onartu zen Bat-egite Kontratuan hitzartutakoaren arabera. Eta, ondorioz, berriz pentsa dezatela eta ezeztatu dezatela Administrazio Kontseiluko kide kopurua murrizteko erabakia, Kutxa entitate fundatzailearen interesei eta Gipuzkoako herritarrenei kalterik ez egiteko.

3.- El ayuntamiento de Urnieta exige que los actuales gestores de Kutxabank respeten la representación acordada para la entidad fundadora Kutxa, ello según lo acordado en el Contrato de Integración que fue aprobado por las respectivas Asambleas de las tres cajas integradas. Y en su consecuencia, reconsideren y anulen la disminución en el número de personas integrantes de Consejo de Administración. A fin de no perjudicar ni los intereses de la entidad fundadora Kutxa, ni tampoco los de los y las ciudadanas de Gipuzkoa.

4.- Urnietako Udalak uste du beharrezkoa dela kutxak arautuko dituen udal legedia bat. Hori erakundetan hautatutako ordezkari guztiekin negoziatu eta adostu beharko litzateke, eta errespetatu egin beharko litzateke herriko pluraltasun instituzional eta soziala, gobernantza onaren arauak kontuan hartuta, eta zuzendaritza-organotako kideentzat kudeaketaren profesionaltasun eta bikaintasunaren irizpideak errespetatuta.

4.- El Ayuntamiento de Urnieta consideran necesaria una legislación vasca de regulación de las Cajas que deberá ser negociado y consensuado con todos los representantes elegidos en las instituciones, forma especial con aquellos que representan a las entidades fundadoras de las Cajas, así como ser respetuosa con los criterios de respeto a la pluralidad institucional y social del País y atendándose a las normas de la buena Gobernanza, con respeto a los criterios de profesionalidad y excelencia en la gestión para las personas que integren los órganos de dirección.

Xabier Yurramendi

Herme Gonzalez

BILDU udal taldeko bozeramailea  
Portavoz del grupo municipal de BILDU

PSE-EE udal taldeko bozeramailea  
Portavoz del grupo municipal PSE-EE



**2012KO URTARRILAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 31 DE ENERO DE 2012**

**ANEXO III/ III.ERANSKINA**

**PSE-EE-REN MOZIOA, BIDEGABEKO  
HAURREN JABETZARI ETA ADOPZIO  
IRREGULARREI BURUZKOA**

Herme González Moránek, Urnietako Udaleko PSE-EE taldearen bozeramaileak, HAUR JAIOBERRIEN USTEZKO BIDEGABEKO JABETZAREN ETA ADOPZIO IRREGULARREN INGURUKO MOZIO hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko.

**JUSTIFIKAZIOA**

50eko hamarkadatik 1990era bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainiako Estatu osoan hainbat irregulartasun administratibo egin ziren, haur jaioberrien bidegabeko jabetzarekin edo adopzio irregularrekin zerikusia izan dezaketela susmarazten dutenak. Errepresio frankistaren garaian, hainbat pertsona familia askoren pobreziaz, analfabetismoaz, informazio faltaz eta eskubide gabeziak baliatu ziren.

Haur jaioberriak osteko eta saltzeko halako egintzak antolatzeko errepresio frankistaz baliatu ziren pertsona haiek beren botere-egoera erabiltzen jarraitu zuten geroago, delitu horiek egiten jarraitzeko.

**MOCIÓN DEL PSE-EE SOBRE LA  
APROPIACION INDEBIDA DE  
NIÑ@S RECIÉN NACID@S O  
ADOPCIONES IRREGULARES**

Herme González Morán, Portavoz del Grupo PSE-EE del Ayuntamiento de Urnieta, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION con relación a la SUPUESTA APROPIACION INDEBIDA DE NIÑ@S RECIÉN NACID@S O ADOPCIONES IRREGULARES.

**JUSTIFICACION**

Entre los años 50 y hasta 1990, en la Comunidad Autónoma del País Vasco y en todo el Estado español, se han dado irregularidades administrativas que hacen sospechar sobre casos de apropiación indebida de niñ@s recién nacid@s o adopciones irregulares. Con origen en la represión de la dictadura franquista hubo quienes se aprovecharon de las circunstancias que padecías muchas familias de pobreza, analfabetismo, falta de información y ausencia de derechos.

Las personas que se aprovecharon de la represión franquista para organizar estas tramas de robo y venta de niñ@s siguieron años más tarde utilizando su situación de poder para seguir perpetrando estos hechos

*Urduluko Udala**Urdulua**Ayuntamiento de Urdulua*

## 2012KO URTARRILAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE ENERO DE 2012

delictivos.

Dirudienez, baziren bide egonkor batzuk haurren legez kanpoko trafikorako. Horietako batek Madril eta Valentzia lotzen zituen, eta beste bat Iparraldetik, Euskal Autonomia Erkidegotik eta Nafarroatik, Valentziako eta Saguntoko sehaska-etxetaraino zihoan. Euskadin dauden kaltetuen bi elkaratek, SOS Haur Lapurtuak eta Anadir elkaratek, haur jaioberrien 400 lapurreta-kasu baino gehiago zenbatu dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia gaur egun haur jaioberrien ustezko lapurreten 200 kasu izapidetzen ari da; horietatik 121 Gipuzkoari dagozkio, 48-64 bitartean Bizkaiari eta 31 Arabari. Gipuzkoa da Espainiako Estatu osoan kaltetu gehien duten lurraldeetako bat.

SOS Haur Lapurtuak eta Anadir elkaratek euskal erakundeetara jo dute eta haiekin bilerak egin dituzte, haien egoera, kezkak, eskaerak eta eskariak azaltzeko eta horien jakitun egiteko.

Bercziki, 2011ko irailean Gipuzkoako Batzar Nagusietako Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean izan ziren, eta foro horretan, botere publikoei haur lapurtuen kasuak ikertzen eta salatzen laguntzeko zer eskatzen zieten azaldu zuten.

Elkarte horiek eta kaltetuek erakundeei eskatzen diete berma diezaietela egia jakiteko eskubidea eta desagertutako familiakoak non dauden jakiteko eskubidea; izan ere, tokiko, lurraldeko, erkidegoko nahiz estatuko agintaritzak eskudunen betebeharrak politikoa da hori. Hori dela eta, PSE-EE udal taldeak mozio hau aurkeztu du:

Al parecer, existían unas rutas estables en el tráfico ilegal de niños. Una que unía Madrid con Valencia y otra que operaba desde el Norte, País Vasco y Navarra, a las Casas Cuna de Valencia y de Sagunto. Las dos asociaciones de afectados existentes en Euskadi, SOS Bebés Robados y Anadir han contabilizado en el País Vasco más de 400 casos de robos de niños recién nacidos. El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (TSJPV) está tramitando actualmente 200 casos de presuntos bebés robados, de los cuales 121 corresponden a Gipuzkoa, entre 48 y 64 a Bizkaia y 31 a Alava. Gipuzkoa es uno de los Territorios que aglutina un mayor número de afectad@s a nivel del Estado español.

Las asociaciones Sos Bebés Robad@s y Anadir han acudido y se han reunido con todas las instituciones vascas para explicarles y hacerles conscientes de su situación, preocupaciones, peticiones y demandas.

En particular, comparecieron en septiembre de 2011 en la Comisión de Igualdad, Derechos Humanos y Memoria Histórica de las Juntas Generales de Gipuzkoa y en ese foro explicaron las reivindicaciones que hacían a los poderes públicos para ayudarles en la investigación y en la denuncia de los casos de niñ@s robad@s.

Estas asociaciones y los afectad@s piden de las instituciones que se les garantice el derecho a la verdad, el derecho a ser informados del destino de los familiares desaparecidos porque es una obligación política de las autoridades competentes a nivel, local, territorial y autonómico, así como estatal. Es por ello que el Grupo Municipal del PSE-EE, plantea la





## 2012KO URTARRILAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE ENERO DE 2012

siguiente

### MOZIOA:

**LEHENENGOA.-** Urnietako Udalak bat egiten du elkarteen eta kaltetuen eskaerarekin, hau da, batez ere Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatzea har ditzatela beharrezkoak diren eta eskura dituzten neurri guztiak, elkarte eta kaltetu horiek exijitzen duten egiarako eskubidea bermatzeko.

**BIGARRENA.-** Urnietako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta batez ere Gipuzkoako ahalduen nagusiaren kabinetearen barnean sortutako Oroimen Historikoaren Zuzendaritzari eskatzen dio sina dezala hitzarmen bat elkarte eta kaltetu horiekin, diruz laguntzeko eta dokumentazioa, arreta psikologikoa, lege arloko laguntza eta bestelako laguntza eta diru-laguntzak lortzen laguntzeko, ikertzen eta salaketak egiten jarraitzeko modua izan dezaten.

**HIRUGARRENA.-** Urnietako Udalak parlamentu-instituzioei eskatzen die — Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Eusko Legebiltzarra eta Diputatuen Kongresua — sor dezatela Ikerketa Batzorde bat Gipuzkoako Lurralde Historikoan izandako haur lapurtuen kasuetan egia argitu dadin.

**LAUGARRENA.-** Urnietako Udalak laguntza eskatzen die haur lapurtuen jukutriarekin zerikusia duten ospitale publiko eta pribatuei eta Eliza katolikoari, batez ere Donostiako Gotzaindegiari, beharrezko informazioa eta dokumentazioa lortzen lagundu diezaieten elkartei eta kaltetuei, agiriak aurkitzeko eta eskuratzeko modua erraztuz.

### MOCION:

**PRIMERO.-** El Ayuntamiento de Urnieta, se suma a la petición de las asociaciones y afectad@s de pedir, en especial, a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Gobierno vasco y al Gobierno del Estado a que adopten cuantas medidas sean necesarias y estén a su alcance para garantizar el derecho a la verdad exigido por estas asociaciones y afectad@s.

**SEGUNDO.-** El Ayuntamiento de Urnieta, insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa, en particular a la Dirección de Memoria Histórica creada dentro del Gabinete del Diputado General de Gipuzkoa a suscribir un convenio con estas asociaciones y los afectad@s para ayudarles económicamente, colaborar con ellos en la obtención de documentación, atención psicológica, ayuda legal y otras ayudas y subvenciones para el desarrollo de sus actividades de investigación y denuncia.

**TERCERO.-** El Ayuntamiento de Urnieta, pide a las instituciones parlamentarias, -Juntas Generales de Gipuzkoa, Parlamento Vasco y Congreso de los Diputados-, la apertura de una Comisión de Investigación para el esclarecimiento de la verdad en los casos de niñ@s robad@s en el Territorio histórico de Gipuzkoa.

**CUARTO.-** El Ayuntamiento de Urnieta. solicita la colaboración de todos los Hospitales Públicos y privados, que estén relacionados con la trama de robo de niñ@s y a la Iglesia Católica, en especial al Obispado de San Sebastián, a colaborar con las asociaciones y afectad@s en el acceso a la información y documentación necesaria, facilitándoles el

*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**España*

## 2012KO URTARRILAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE ENERO DE 2012

acceso a la misma y su obtención.

**BOSGARRENA.-** Urnietako Udalak Estatuko fiskal nagusiarri eskatzen dio eman dezala instrukzio bat, fiskaltzek haur lapurtuen salaketei buruzko prozesu judizialak eta ikerketak susta ditzaten eta bide eman diezaieten agintzeko.

**QUINTO.-** El Ayuntamiento de Urnieta, insta al Fiscal General del Estado a dictar instrucción, ordenando a las Fiscalías que promuevan y faciliten la apertura de procesos judiciales y la investigación en relación con las denuncias relacionadas de niñ@s robad@s.

**SEIGARRENA.-** Urnietako Udalak bere eskumeneko arlo guztietan lagunduko die elkarte eta kaltetuei, eta, gainera, bere babesa, elkartasuna eta maitasuna adierazten die.

**SEXTO.-** El Ayuntamiento de Urnieta, colaborará en todo lo que competa con las asociaciones y afectad@s, mostrándoles además su apoyo, solidaridad y cariño.

Urnietako Udala, 2012ko urtarrilaren 24a

En Urnieta, a 24 de enero de 2012.

Herme Gonzalez

PSE-EE udal taldeko bozeramailea  
Portavoz del grupo municipal PSE-EE